

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Emilia Sistiaga Allika

*Bermeo
Bizkaia (1932)*

Aurkibidea



Biografia



[Nardiztar Jon](#) kalean sortu zen bederatzi neba-arrebadun familia batean, bera izan zen alaba bakarra beste ahizpa umea zela hil baitzen. Gurasoak ere bermeotarrak zituen, baina aitaren familia Plentzian bizi zen. Eskolara gutxi joan zen etxean lagundu behar izaten zuelako. 13 urte gaz portuan hasi zen beharrean neskatila legez; beranduago, kontserba-fabrikari ere hasi zen. Horrela ibili zen lan biak tartekatzen erretiratu arte.

Zintak

BRM-103

- **Proiektua:** Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-11-11
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. 'Plentzinunekuek' ezizena

- **Erref:** BRM-103/003
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:05:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

<p>Emili Plentzinu edo Emili Plentzinunekue ezizena. Beren arbasoen baserria erre egin zen, eta Emiliaren familia Plentziara joan zen bizitzen umetan. Gero Bermeora itzuli zirenean, Plentzinu ezizenarekin geratu zen Emiliaren familia. Sistiaga abizena Arratiatik ei dator. Ama bermeotarra.</p>

2. Antzinako Bermeon denak pobreak

- **Erref:** BRM-103/005
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:07:08. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Berak gaztetan ezagututako Bermeon denak pobreak ziren. Jende ona, beti elkarki laguntzeko prest zegoena. Armonia onean bizi izan da bai familiarekin eta bai auzoarekin.

3. Buruan arrain-otzara handiak garraiatzen

- **Erref:** BRM-103/006
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:10:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Umetan gutxi olatu da. 13 urterekin jaitsi zen portura beharrera. Arrain-otzara handiak eramaten zituen buruan hartuta kofradiara.

4. Karnata prestatzen neskatilak

- **Erref:** BRM-103/007
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:10:49. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Neguan karnatarako antxoa txikia harrapatzen zen. Barriletan ipintzen ziren gatza emanda. Tretzak prestatzen egiten zuten lana "neskatilek".

5. Sareak tindatzen

- **Erref:** BRM-103/008
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:13:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Sareak kolorea galtzen zuten erabileraren poderioz, eta portu ondoko leku batean tindatu egiten ziren. Gero Lameran eskegitzen ziren.

6. Arraina portutik fabrikara garraiatzen

- **Erref:** BRM-103/009
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:16:21

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Ilaran jarri eta eskuz esku pasatuz husten zen atuna ontzitik. Pisatu eta banan-banan jasotzen zuten kamioira. Zenbait garraiolariren izenak. Antzina, gurdian ere eramaten zen behiek tiratuta. Gero neskatilak otzaren bila joan behar izaten zuten fabrikara. Buruan ekarri eta marea behera zegoenean garbitu egiten zituzten. Baporeen ondoren motorrak etorri ziren. Aurrerapen handia izan. Neskatilek esku-gurdiak erabiltzen hasi ziren.

7. Bermeoko andreak lan asko egindakoak

- **Erref:** BRM-103/010
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:16:21. **Bukatu:** 00:18:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Portuan lanik ez zegoenean, fabrikara joaten ziren. 16-17 urterekin hasi zen fabrikan. Lana ondo egiten zen eta lan-giro ona zegoen. Antxoa garaian emakumeek gizonen beharrak egin behar izaten zituzten, neke fisiko handiko lanak. Bermeoko andreak behar asko egin ei du portuan zein fabrikan. Latak egiten eta abar ere jarduten zuten.

8. Portuko "neskatilla" lanak

- **Erref:** BRM-103/011
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:18:28. **Bukatu:** 00:20:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Izoko batek utzi egin zuen neskatila lana, eta haren ordeztatu zen Emilia. Lau neskatila ziren bi barkurentzat. Garbitasunak egin, barkuak janariz hornitu eta horrelakoak.

9. "Freskotan" lanean

- **Erref:** BRM-103/012
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:20:02. **Bukatu:** 00:22:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Sasoi batean "freskotan" ibili zen lanean. Arrain-erosle batentzat egiten zuen: izotz bila joan, arraina izotzetan sartu, esku-gurdiz kamioira eraman eta horrelakoak. Ugazaba andrea oso ona izan zuen, egunean egunekoa ordaintzen zion eta gainera erraina eta itsaskiak ematen zizkion. Oso berba onak ditu ugazabentzat.

10. Kontserba-fabrikako lanak

- **Erref:** BRM-103/014
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:22:53. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Fabrikako lanak: atunak zatitu, egosi, latetan sartu... Emiliaren lanetariko bat olio botatzea zen. Beti kantuan ibiltzen zen, pertsona alaia izan da. Enkargatuak jakiten zuen bakoitza zein lanetan ipini .

11. Umeak fabriketan lanean

- **Erref:** BRM-103/015
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:24:30. **Bukatu:** 00:24:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

<p>14 urtera arte ezin zuten umeek fabriketan lan egin legez, baina egin egiten zuten lan asko zegoen garaian. Inspektoreak sumatzen zituztenean, ezkutatu egiten zituzten haurrak.</p>

12. Zaharrek burua berotuta, soldata-igoera eske

- **Erref:** BRM-103/016
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:24:58. **Bukatu:** 00:28:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Ekonomia eta industria

Laburpena:

Fabrikako zaharrenek burua berotzen zieten sartu berriei soldata-igoera eska zezaten. Sinistu, ugazabarengana joan eta honek erantzun eurak etor zitezela. Izan ere zaharrek onura atera nahi zuten, gazteak aurrera botata. Fabriketan gabon-saria ere ematen zieten, bakailaoa eta olio botila.

13. Etorkin batzuek euskaraz ikasi, beste batzuek ez

- **Erref:** BRM-103/020

- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:32:47. **Bukatu:** 00:33:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Gizonek egiten zituzten lan fisiko astunenak. Badajozetik etorririkoak ziren asko. Batzuek euskaraz ikasi zuten baina beste batzuek ez, eta "hablen en cristiano" esaten zieten.

14. Abisuak mutilaren bidez lehendabizi, irrati bidez gero

- **Erref:** BRM-103/023
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:36:18. **Bukatu:** 00:37:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Antzina mutila ibiltzen zen etxez etxe abisuak ematen. Esaterako, zein ordutan helduko zen ontzia itsasotik. Gero irrati egiten zen hori, etxean hartzen zuten deia. Gaur egun askoz ere informazio gehiago dute etxean.

15. Portuko emakumearen janzkera

- **Erref:** BRM-103/025
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:38:14. **Bukatu:** 00:39:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Mantoia, bufanda, amantala, eskuz egindako jertsea... ziren orduko jantziak. Gomazko botak bai baina eskularrik ez. "Piedrabolak", amu askoko arrantza-tresna.

16. "Partila", itsas langilearen soldata

- **Erref:** BRM-103/026
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:39:45. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

Gizonen erdia irabazten zuten "neskatilek". Partiletxean kobratzen zuten, lonjan bertan. Neskabila bat joaten zen bankura diru bila. Partilaz gain, afaria ere ematen zieten gizonei zein andreei.

17. Bi lan batera

- **Erref:** BRM-103/028
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:42:33. **Bukatu:** 00:44:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Bilbora arrandegi batera joateko proposamena izan zuen baina ez zuen nahi izan. Portuan neskabila bezala eta arrandegian laguntzen, l behar biak batera eraman zituen, baina beti ere neskabila lanak zuen lehentasuna.

18. Errekara arropak garbitzera

- **Erref:** BRM-103/031
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:49:40. **Bukatu:** 00:51:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Ama errekkara joaten zen arropak garbitzera. Dena eskutan garbitzen zen. Txukun-txukun pilatuta ekartzen ziren etxera. Etxean egindako xaboiak eta txinbogaz egiten ziren garbiketak. Lixiba (lejia) ere erabiltzen zen.

19. 'El guerrero del antifaz' irakurtzen, anaiari hartuta

- **Erref:** BRM-103/035
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:56:20. **Bukatu:** 00:58:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Ez du egundo aldizkaririk irakurri. Lagunek artisten gauzak eta komentatzen zituztenean adi-adi entzuten zien. Oraintsu hasi da egunkaria irakurtzen. *El guerrero del antifaz* eta Far West-eko nobelak irakurri izan ditu, anaiari hartuta. Bazen leku bat Bermeon nobelak saltzen eta alokatzen zituztena.

20. 'Bizkaia Irratia' eta 'Euskadi Irratia' entzuten

- **Erref:** BRM-103/037
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:58:07. **Bukatu:** 00:59:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

<p>Bizkaia Irratia entzuten du egunero. 09:00etan Begoñako meza. Domeketan, Arantzazuko meza Euskadi Irratian.</p>

21. Oso eliztarra bere bizi guztian

- **Erref:** BRM-103/038
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:59:32. **Bukatu:** 01:01:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Egunero entzuten du meza elizan. Santa Marian egin zuen jaunartzea. Oso elizkoia izan da. Gustatzen zitzaion alabak aingeru janztea prozesiotan. Seme-alabak eta birlobak ere fedean hezi ditu.

22. Bermeoko prozesioak

- **Erref:** BRM-103/039
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:01:58. **Bukatu:** 01:03:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

San Antonio Egunez, Aste Santuan, Gorpuzti egunez eta abar prozesioak egiten ziren. Prozesioen ibilbidea zein zen.

23. San Martin eta San Joan jaiak

- **Erref:** BRM-103/041
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:04:00. **Bukatu:** 01:05:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Martin
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

San Martinera joaten ziren umeei kutuna (begizkoaren kontrako amuletoa) ipintzera. Egun horretan gisatua jaten zen lonjetan. San Joanetan osasuna eta suerte ona eskatzen zitzaion santuari. Ugazabak atun bat ematen zien neskatilei.

24. "Nire nobixuaren ama" kanta

- **Erref:** BRM-103/043
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 01:05:34. **Bukatu:** 01:05:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak

Laburpena:

"Hoy no vengo, salada, a la romería.../ Nire nobixuaren ama..." kanta.

25. "Saltzen saltzen..." kantua

- **Erref:** BRM-103/045
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:06:27. **Bukatu:** 01:07:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak

Laburpena:

<p>Lehenengo ikurrina ikusi zuenean Santa Mariako dorrean poz handia hartu zuen. "Saltzen saltzen..." kantua.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com